



BIZITZARAKO OGIA

JAUNAK ba-eban antxiña be berarizko maitasunez gura eutsen eña: Israel. Aigitotafen menpetik atera ta aufetik eskiñi eutsan lur jorirako bidean ortzetik jatsitako ogiz janaritu eban. Iruntza iduri zerutik jausten zan janari ari «mana» eritxon. Antxiñako ogia, oster, oraingoaren iduri baño etzan. Orain be zerutiko ogia jaten dau gizonak; eta ogi ori Kisto'ren Gorputza dozu. Berak diño: «Neu nozue bizitzarako Ogia, zerutik jatsia; Nigana datofena ezta gose izango, ta siñestun yata, ezta bein be egafi izango». Jon, VI, 55.

Bai, altaretan, ogi-iduripean, Kisto dago; bere aragi-odol eta guzti, lufean bizi zan letxe, Aita Jaunaren eskumaldian dagoana berbera. Azken-aparian, begiak gora jaso eskar egin eta ikasleai dirautsoe: «Artu egizue; au da nire Gorputza». Mark., XIV, 22. Eta bat-batera, len ogi-txatal baño etzana Kisto'ren Gorputz biurtu zan. Ontzia arturik be bardin dagi; esker eginda, emon eutsen eta danak edan eben edontzi artatik. Ta diño: «Au da Itun Bafiko nire Odola, askoren alde ixuriko dana». Mark., XIV, 24. Orduantxe bertan, beste ainbeste egiteko eskubidea artu eben ikasle edo apostoluak Kisto'gandik, eta ikasleakandik ondorengo jaupari edo eleiz-gizon guztiak. Ofela, jaupariak Kisto'k esandako itzak esatean, Kisto'k berberak egin ebana, dagie.

Jesus, ba, ogi ta ardo-iduripean artzen dogu; ogi lez damosku bere Gorputza, ogia jaten dogun letxe jan daigun. Bazter guztietan aurkitzen dogu ogia, edonok jaten dau; ogi barik ezin daitekela bizi, dirudi. Gogo-bizitzarako be naitaezkoa da Ogia, Kisto'ren Gorputza. Bizi gura ba dozu, jan nagizu, dirausku berberak. Eta Augustin andiak: «Bizi gura dabenak ba dau nundik edo zegaz bizi: uferatu bedi ta siñestu, Kisto'ri itsatsi bekio ta biziko da».

Bizia opa ba-dozu, uferatu zaitez, ba, altarara, ta jan Kisto'ren Soña. Beragaz bat egingo zara; zu Kisto'gan ta Kisto zugaran biziko zarie, alkar artuta soña ta gogoa letxe. Berak argituko zure biotz iluna, janari lez argi da-ta. Esker eta egiz apainduko zaitu; goiko bizitza oparo ixuriko dau zure biotz-zokora. Bizi-egafi zarean ori, zoaz Aingeruen Maira, ta artu bizitzarako Ogia.

Gorputz-biziak iraungo ba-dau, janaria bear. Or zegaitik ain safi jaten dogun. Eta jan-edanak soin-bizitza iraun-azo, geitu, osatu ta atsegindu daroa. Toma deunak argi dirauskunez, Jaunaren Gorputzak be beste ainbeste dagi gogo bizitzan.

Lenen, arimarentzako ogia da Kisto'ren Gorputza, eta ogia-gaz janaritu egin oi gara. Ikurton au artzeko Jaunaren eskafean, au da, oben edo pekatu barik egon bear dogu; eta Jaunaren adiskide gareala, bere Gorputza artzen dogunean, Jaunagaz batuago egiten gara sua burdin goriaz letxe. Ona zer diñoan Berak: «Nire aragia jan ta nire odola edaten dabena. Nigan dago ta Ni arengan». Jon, VI, 56. Eta au berebiziko osakaya dana, oben-bideik aldetako, eztago zetan esan. Arimea oben astunez il daikegun afiskuetafik ufintzen gaitu, ta zerurako bidean jañi.

Esker-bizitza sendoago dagisku, zindokuntzarako eskeña geitu. Kisto'ren aragi ta odolez janaritzen gara, ta bear danez artu ezkeron nai ta-ez ugariagotu bear, Ikurton edo sakramentuak berez damoe eskeña-ta. Baña zetan jan egunero? Gun edo gozo bako zugatza laster dago igar. Bardin jazoko litzakio gure soñari be jan eta edan ezik. Gogo-bizitzan be egunero daukaguz utsegite ta akats kaskafak; biotz-eraspena ta maitasafea itzali ez, baña zerbait epeltzen dabeen oben edo pekatu ariñak egiten doguz. Gure-Jauna biotz-beroz artu ezkeron, bañiz, oben ariñok parkatzen yakuz eta auferantzean ain eñez jausi ezkaitezan, indar bañiak emoten dauskuz Jaunak.

Atzenez, atsegiñaldi gozoak dakarskuz Kisto'ren Gorputzak. Oturuntza ta janaldi edefak poza sartzen gure bafura; gogo-oturuntzak gozotasun eta atsegiñez gañezka ipinten dau biotza. Izan be, Kisto berbera bular-bañuan eukirik, nor ezta pozaren pozez aurkituko? Izan ete daike atsegin garbiagorik? Poz bide obarik? Kisto bafura datorkigunean, edonok asmetan dau, afizkoa ezpada beintzat, Beraganako maitasun isioa. Ta maitasunak poza dakar.

Gure lera ta griña txafak ezi ta azteko be Kisto'ren Gorputza baño eragikoragorik ezta ezagutzen. Erasponentsu Jauna artzen dogunean beñik-bein, bere maitasunak urtu daroaz lera ofeik. Auxegaitik griña txafak zustañetik atera gura izan ezkeron, Gure-Jauna artu, Kristo'ren Gorputza, bizitzarako Ogia jatea dogu on-onen.

O Kisto'ren Gorputza! Iluna argitzen dozun Argi bizia! Nire arimearentzat eguneroko Ogia! Biztu, afen, nire bafuan Zugana biotz beroz naroyaken su gartsua. Zatoz ene bafura, Zu bait-zera nire Bizia, nire Poza.

SANTI, K. O.